



ENPRESA-JARDUEREN KOORDINAZIOA



Mutualiako
Prebentzio-aholkularitzak
sortua



AURKIBIDEA

Aurkezpena

A. Enpresa Jardueren Koordinazioa (EJK)

- Enpresa Jardueren Koordinazioaren helburuak
- Definizioak
- Enpresen betebeharrak EJKn
- EJKrako baliabideak
- Prebentzio-jardueren koordinatzailea

B. Koordinazioa Eraikuntza-lanetan

Besteren konturako langileak dituzten langile autonomoak eta EJK

Aplikatu beharreko araudia

AURKEZPENA

Enpresa Jardueren Koordinazioak (EJK) sortzen diren arazoei irtenbidea emateko bide bat izan nahi du. Enpresetan egoera bat gero eta ohikoagoa bihurtzen ari da: alegia, obrak eta zerbitzuak kontratatzeko gero eta joera handiagoa dago.

Kontratazio edo azpikontratazio hori enpresaren ekoizpen-jardueraren zati bat deszentralizatzeko modu bat da, enpresa titular edo nagusi baten eta enpresa kontratista baten arteko kontratu-mota desberdinen bidez.

Egoera horietan, hainbat enpresatako langileak elkartzen dira lantoki berean. Enpresa bakoitzak bere lanak egiten ditu, bere arriskuak sortuz eta horiei aurre eginez. Arrisku horiek lantokian dauden beste enpresetako langileei ere eragin diezaiekete, eta arriskuak larriagotu ere egin daitezke, enpresa horiek egindako jardueren ondorioz.

Askotan, kontratatutako edo azpikontratatutako enpresek izandako edo eragindako istripu-tasak askoz

handiagoak dira, lana egiten duten enpresenak baino.

Egoera horien arrazoiak honako hauek izaten dira, besteak beste:

- Komunikazio eskasa koordinazio-arloan.
- Arrisku orokor eta espezifikoak buruzko prestakuntza eta informazio desagokiak.
- Lanen behin-behinekotasunari lotutako ezustekoak.

Horregatik, garrantzitsua da lantoki berean lanean ari diren enpresak euren artean ondo koordinatzea, arlo horretan dagoen araudia betetzeko, bai 171/2004 Errege Dekretua, enpresa-esparruko enpresa-jardueren koordinazioari buruzkoa, bai 1627/97 Errege Dekretua, eraikuntza-obrei dagokiena.



EIK-DEN HELBURUAK

EJK-REN HELBURUAK

- Lantokian diharduten enpresek prebentzio-ekintzaren printzipioak koherentziaz eta arduraz aplikatzea (hain zuzen ere, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 15. artikuluan ezarritako printzipioak).
- Lantokian lanean diharduten enpresek behar dituzten lan-metodoak aplikatzea.
- Zentro horretan egiten den jarduera guztien interakzioak kontrolatzea, batez ere arrisku larriak edo oso larriak sor baditzakete, eta langileen segurtasunaren nahiz osasunaren ikuspegitik bateraezinak diren jarduerak egiten badituzte ere.
- Oreka eta egokitasuna lortzea zentroko arriskuen eta prebentzio-neurrien artean. Hau da, parte hartzen duten enpresetako langileei eragin diezaieketen arriskuen eta horiek prebenitzeko neurri egokien artean.

DEFINIZIOAK

DEFINIZIOAK

Lantokia. 171/2004 Errege Dekretuaren 2. artikuluaaren arabera, langileek lan egiteko edo lanera sartzeko edozein eremu da lantokia, eraikia izan edo ez.

Lantokiaren enpresa titularra. Lantokia eskura jarri eta kudeatzeko gaitasuna duen pertsona da. Berak agindu, zuzendu eta kontrolatzen du zentroa. Hainbat betebeharrak ditu, zentroan langilerik duen ala ez kontuan hartuta.

Lantokian egiten ez den jarduera bat kontratatzen da.

Enpresa nagusia. Enpresaburuak kontratatzen edo azpikontratatzeko dituzten jarduerari dagozkion eta bere lantokian garatzen diren obrak edo zerbitzuak. Enpresa titularra ere izan daiteke.

Konkurrentzia. Lantoki berean bi enpresetako edo gehiagoko langileek lan egiterari esaten zaio. Beraz, enpresa konkurrenteak honako hauek izango

lirateke: lantoki berean eta aldi berean lan egiten duten enpresa kontratistak, azpikontratistak eta langile autonomoak.

Kontratista. Enpresa titularraren edo/eta nagusiaren aurrean, lan guztiak edo zati bat burutzeko konpromisoa hartzen duen pertsona fisikoa edo juridikoa. Proiektuari edo kontratuari lotutako lan horiek egiteko, bere edo beste norbaiten giza baliabideak eta baliabide materialak erabil ditzake.

Azpikontratista. Kontratistaren aurrean, bere giza baliabideekin eta baliabide materialekin, lan guztiak edo batzuk egiteko konpromisoa hartzen duen pertsona fisikoa edo juridikoa da. Honek ere proiektu edo kontratu bati loturik egingo du lana.

Prebentzio-jardueren koordinatzailea. 171/2004 Errege Dekretuan araututako figura da, lantoki berean enpresa batek

baino gehiagok lan egiten duten egoeretarako lehenetsunezko koordinatzailea.

Prebentzio-baliabidea. Arlo honetan ezagutza, kualifikazioa, esperientzia eta baliabide nahikoak dituen pertsona. Pertsona horrek zainduko ditu arrisku bereziko kasu eta egoeretan prebentzio-jarduerak betetzen direla.



BETEBEHARRAK

ENPRESEN BETEBEHARRAK KOORDINAZIOAREN ALORREAN

1. KASUA. HAINBAT ENPRESATAKO LANGILEEK LANTOKI BATEAN LAN EGITEN DUTE, ENPRESABURU TITULARRIK EDO NAGUSIRIK GABE.


Lantoki berean lanean ari diren langileen enpresaburu guztiak konkurrenteak dira, establezimenduaren titulartasuna norena den alde batera utzita.

Enpresaburu horien eginkizuna da elkarlanean aritzea. Betebehar hori aplikatuko zaie lantokian parte hartzen duten enpresa eta langile autonomo guztiei, euren artean harreman juridikoak egon nahiz ez egon. Lankidetzarako betebeharra jardueraren aurretik hasten da, informazioa emateko betebeharraren bidez hain zuzen ere.

Informazio hori lantoki horretan egiten diren jardueren arrisku espezifikoetarako buruzkoa da. Gainera, lan-istripu bat gertatzen denean, gainerako enpresaburuei informazioa eman behar zaie; eta larrialdi-egoeran hartu beharreko neurriei buruzko informazioa eskaini behar da. Honako hauek dira informazio horren ezaugarriak:

- Benetakoa izatea
- Eguneratua izatea
- Neurrikoa izatea

Enpresaren batek arrisku larriak edo oso larriak sortzen dituenean, informazioa idatziz emango da. Gainerako kasuetan ahozkoa izan daiteke, baina idatziz ere egin daiteke. Egia esan, askotan gomendagarriagoa da enpresen artean ematen edo jasotzen den informazio hori dokumentatuta geratzea.



Enpresek informazio betebeharrak horri erantzun ondoren, honela jokatu behar dute:

- Kontuan hartuko dute lantokian egingo diren jardueren arriskuen ebaluazioa egiteko edo aldatzeko beste enpresek jasotako informazioa, bai eta prebentzio-jardueraren plangintza egokia ere, parte hartzen duten enpresaburu guztiek beren langileei “babes eraginkorra” bermatuz.
- Koordinazio-baliabide egokiak erabiliko dituzte.
- Langileei jakinaraziko diete jarduerak dakartzaten arrisku berriak.

2. KASUA. ENPRESABURU BAT TITULAR DEN LANTOKI BATEAN HAINBAT ENPRESATAKO LANGILEEK PARTE HARTZEA.

■ ENPRESA TITULARREAN LANGILE PROPIOAK BADAUDE

Lantokia eskura jarri eta kudeatzen duen enpresaburuak, aurreko paragrafoan ezarritako informazio-betebeharrak betetzeaz gain, beste enpresaburu lehiakide bat balitz bezala, honako jarduketa gehigarri hauek egin beharko ditu.

Parte hartzen duten enpresei informazioa emango die, eragin diezaieketen zentroko arriskuei buruz, dagozkien prebentzio-neurriak buruz eta larrialdietan egin beharreko jarduketei buruz.

Jarraibideak. Parte hartzen duten enpresen arriskuei buruzko informazioa bildu ondoren, jarduerak batera egitearen ondoriozko arriskuak prebenitzeko jarraibideak ematen zaizkie langileei, bai eta larrialdi-neurriak ere.

1. kasuan adierazitako modu eta baldintza berberekin egiten da.

■ ENPRESA TITULARREAN BERTAKO LANGILERIK EDO LANGILE PROPIORIK EZ BADAGO


Zentroko titularrak langile propiorik jartzen ez badu, betebeharrak honako hauetara mugatuko dira:

Informazioa emango die parte hartzen duten enpresariei beren zentroko arriskuei buruz; eta kontratatutako eta azpikontratutako enpresek egiten dituzten jardueretan eragina izan dezaketen arriskuei buruz; halaber, arrisku horiek ekiditeko behar diren neurriak ere jakinaraziko dizkie.

Larrialdietan egin beharreko jarduketan berri ere emango die.

3. KASUA. HAINBAT ENPRESATAKO LANGILEEK LANTOKI BATEAN PARTE HARTZEA, ENPRESABURU NAGUSI BAT DAGOENEAN.

Enpresaburu nagusia da beste enpresa batzuk kontratatzen edo azpikontratatzeko dituen, bere lantokian bere jardura propioa den lana edo zerbitzua burutzeko. Betebehar hauek ditu:




- 1 Enpresa kontratista batek beste enpresa batekin azpikontratatzeko badu obraren edo zerbitzuaren zati bat, akreditazio horiek eskatu beharko ditu enpresaburu nagusiari emateko, eta gauza berdina egingo du azpikontratazio-kate osoak hurrenez hurren.
- 2 Enpresa nagusiari dagokio koordinazio-baliabide zehatzak ezartzeko ekimena.

Enpresaburu nagusiak betebehar horiek bete ondoren, parte hartzen duten gainerako enpresek 2. kasuan adierazitako modu berean jokatu behar dute, lanak hasi aurretik eta lanak egin bitartean.

KOORDINAZIO-BALIABIDEAK

Zentroaren enpresa titularraren ardura da jarduerak koordinatzea. Lanak egiten diren bitartean, hainbat baliabide ditu koordinazio eraginkorra burutzeko.

171/2004 Errege Dekretuaren 11. artikulua koordinazio-baliabideen zerrenda ez-zehatza jasotzen du.



Koordinazio-bitartekoak ezartzerakoan kontuan hartu beharrekoak:

- **Ezartzeko betebeharra.** Aurreko ataletako informazioa jaso ondoren, enpresa titularraren arduradunari dagokio koordinazio-bitartekoak ezartzeko ekimena, edo, bestela, enpresa nagusiaren arduradunari. Parte hartzen duten enpresek ezarriko dituzte koordinazio-baliabideak jarduerak hasi aurretik.
- **Eguneratzea.** Koordinazio-bitartekoak premia dagoen guztietan eguneratu beharko dira, eta koordinazioa behar den garaian etengabe aztertuko da eraginkorra den ala ez.
- **Informazioa.** Enpresako arduradun bakoitzak ezarritako koordinazio-bitartekoen berri eman beharko die bere langileei. Langileei beharrezko datuak emango zaizkie, koordinazio-bitartekoak identifikatzeko, bai lantokian prebentzio-baliabideak jarritakoan, bai enpresako jardueren koordinaziorako pertsona bat edo batzuk aukeratutakoan.
- **Egokitasuna.** Koordinazio-bide egokiena, kasu bakoitzean, jarduera bakoitzaren konplexutasunaren eta zailtasun-mailaren arabera izango da. Horretarako, zenbait alderdi baloratu behar dira: hala nola jardueren arriskua (zenbat eta arriskuagoak, orduan eta eraginkoragoak eta konplexuagoak izan behar dute bitarteko horiek), bai eta erabilitako instalazioak eta materialak, jardueren iraupena eta horien eragina izango duten langileen kopurua ere.

PREBENTZIO-JARDUEREN KOORDINATZAILEA

171/2004 Errege Dekretuaren 13. artikulua arautzen du prebentzio-jarduerak koordinatzeaz arduratuko den pertsonaren edo pertsonen izendapena. Horixe izango da koordinazio-bitartekorik garrantzitsuena, baldintza hauetako bi edo gehiago betetzen badira:



- Baldin eta parte hartzen duen enpresa batek erregelamenduz arriskutsutzat edo arrisku berezikitzat jotako jarduera edo prozesuren bat egiten badu lantokian, eta jarduera edo prozesu horrek eragina izan badezake bertan dauden gainerako enpresetako langileen segurtasunean eta osasunean.
- Baldin eta lantokian garatzen diren jardueren elkarrekin kontrolatzeko zailtasun berezia badago, eta arrisku larriak edo oso larriak sor baditzakete.
- Baldin eta lantokian, bata bestearen segidan edo aldi berean, langileen segurtasunarekin eta osasunarekin bateraezinak diren jarduerak ez egiteko zailtasun berezia dagoenean.
- Baldin eta prebentzio-jarduerak koordinatzeko konplexutasun berezia badago, honako baldintza hauek direla eta: parte hartzen duten enpresen eta langileen kopurua, garatutako jarduera mota eta lantokiaren ezaugarriak.

Prebentzio-jardueren koordinazioaz arduratuko den pertsona edo pertsonak izendatu beharrean, beste koordinazio-bitarteko batzuk har daitezke helburuak lortzeko; beti ere, justifikatutako arrazoi teknikoak edo antolakuntzakoak egonez gero.

Prebentzio-jarduerak koordinatzeaz honako pertsona hauek arduratu ahal izango dira:

- Enpresa titularraren edo parte hartzen duten gainerako enpresen prebentzio-jarduerak garatzeko izendatutako langile bat edo zenbait langile.
- Lantokiko enpresa titularraren edo parte hartzen duten gainerako enpresen prebentzio-zerbitzuko kide bat edo batzuk.
- Kanpoko prebentzio-zerbitzuko kide bat edo batzuk, lantokiko enpresa titullarrak edo parte hartzen duten gainerako enpresek hitzartuta.

- Lantokiko enpresa titularreko edo parte hartzen duten gainerako enpresetako langile bat edo batzuk, nahiz eta ez izan prebentzio-zerbitzu propioko kide ez izendatutako langileak; hala ere, izan beharko dute jarduerak burutzeko ezagutzak, kualifikazioa eta esperientzia.
- Lantokiko enpresa titularreko beste edozein langile, baldin eta, enpresaren egitura hierarkikoan duen kokapenagatik eta produkzio-prozesuarekin edo -prozesuekin lotuta betetzen dituen eginkizun teknikoengatik, gaitasuna badu lantokian enpresa-jarduerak koordinatzeko.
- Prebentzio-jarduerak koordinatzen dituzten enpresetako pertsona bat edo batzuk, baldin eta beharrezko gaitasunak, ezagutzak eta kualifikazioa badituzte.

Edonola ere, prebentzio-jarduerak koordinatzeaz arduratzen den pertsonak edo pertsonak lankidetzan jardun beharko dute parte hartzen duten enpresaburuen prebentzio-baliabideekin.

Prebentzio-jarduerak koordinatzeaz arduratzen diren pertsonen eginkizunei, betebeharrei eta ahalmenei buruzko jakin beharreko zenbait kontu.

Funtzioak	Ahalmenak	Betebeharrak
■ Araudiko 3. artikuluan aurreikusitako jardueren koordinazioaren helburuak betetzen laguntzea.	■ Parte hartzen duten enpresek trukatu beharreko informazioa ezagutzeaz gain, euren eginkizunak betetzeko beharrezkoa den beste edozein prebentzio-dokumentazioen berri ere izatea.	■ Lantokian egotea euren eginkizunak betetzeko adina denbora.
■ Lantokian parte hartzen duten enpresek trukatu beharreko informazioak elkarri emateko bidea izatea.	■ Lantokiko edozein eremutara sartzea. ■ Parte hartzen duten enpresei euren eginkizunak betetzeko beharrezkoak diren jarraibideak ematea.	■ Prebentzio prestakuntza izatea, gutxienez maila ertaineko funtzioei dagokiena.
■ Lantokiko enpresaburu titularrak agindutako beste edozein eginkizun.	■ Parte hartzen duten enpresei proposatu prebentzio-neurriak hartzea, lantokian dauden langileei eragin diezaieketen arriskuak ekiditeko.	

B. KOORDINAZIOA ERAIKUNTZA-LANETAN

1627/97 ERREGE DEKRETUAK ERAIKUNTZA-OBRETAKO SEGURTASUN-BALDINTZAK DEFINITZEN DITU

Obrek, funtsean, bi fase edo garai dituzte:

PROIEKTUAREN FASEA

- Fase honetan eskatutako obra burutzeko proiektua egiten da. Proiektuaren zati batean segurtasuna eta osasuna aztertzen da, eta bertan definitzen dira obra horretan egongo diren arriskuak, bai eta segurtasun- eta osasun-neurriak ere (obra txikien kasuan nahikoa da segurtasunari eta osasunari buruzko oinarritzko azterketa egitea).
- Fase horretan, segurtasun- eta osasun-koordinatzaile bat egongo da, sustatzaileak izendatutakoa.

GAUZATZE-FASEA

- Zuinketa-aktarekin hasten da, eta sustatzaileak obra bukatzean eta jasotzean amaitzen da, itxiera-akta edo harrera-akta gauzatuz.
- Fase horretan, segurtasun- eta osasun-koordinatzaile bat egongo da burutze-fasean, sustatzaileak izendatuta. Koordinatzaile hori proiektuaren faseko berbera izan daiteke edo beste bat.
- Kontuan izan behar da obrak faseka egiten direla. Fase horien arabera enpresa gehiago edo gutxiago egongo direla eta langile gehiago edo gutxiago (eraikuntza-obra batean ondorengo faseak egon daitezke: hondeaketa-fasea, egitura-fasea, instalazio-fasea eta akabera-fasea). Beraz, koordinazioa etengabe eguneratu behar da.

Eraikuntza-obretan enpresa-jarduerak batera egiteko figura garrantzitsuenak hauek dira:

Sustatzailea

Koordinatzailea

Kontratak

Azpikontratak

SUSTATZAILEA. Lantokiko enpresa titularraren arduraduna da eraikuntza-obretan, eta obra burutuko duen edozein pertsona fisiko edo juridiko da.

SEGURTASUNERAKO ETA OSASUNERAKO KOORDINATZAILEA.


Sustatzaileak izendatutako teknikaria da. Berak koordinatuko ditu segurtasunaren eta osasunaren arloko prebentzio-ekintzaren printzipioak, obra-proiektuaren fasean eta/edo burutze-fasean, 1627/1997 Errege Dekretuaren 8. eta 9. artikuluek arautu bezala, baldin eta obra horretan enpresa batek baino gehiagok edo enpresa batek eta langile autonomo batzuek esku hartzen badute.

Pertsona horiek titulu akademiko eta profesional gaitzaileak dauzkate (arkitektoa, arkitekto teknikoa, ingeniaria, ingeniari teknikoa); horrez gain, eraikuntzan jarduteko eta lan-arriskuak ekiditeko ezagutzak ere badituzte, 1627/1997 Errege Dekretuak bete beharreko eginkizunekin bat datozenak.

- Enpresa-jardueren koordinazioaren antzekoa da. Koordinatzaileak gainbegiratu eta koordinatu egiten du, arrisku handiagorik sor ez dadin eta kontratek nahiz azpikontrata guztiek bete dezaten berak onartutako segurtasun- eta osasun-planean deskribatutakoa.
- Berak jartzen du obran gertakari-liburua. Elkargoak ikus-onetsia egon behar du liburua, eta, edozein arazo gertatuz gero edo segurtasun-neurriak bete ezean, bertan idatziko du gertatutakoa. Bete ezik, kontuan hartuko da irregularitasunaren larritasuna, eta liburua lan-agintaritzari bidali ahal izango zaio.
- Bete ez dena larria bada edo behin baino gehiagotan gertatzen bada, kalera dezakete obratik edozein kontrata, azpikontrata eta edozein langile.
- Arrisku larria eta berehalakoa izanez gero, lanak geldiaraz ditzake, harik eta hori eragin duen arrazoia konpondu arte.
- Beharrezko neurriak hartuko ditu obrara baimendutako pertsonak baino sar ez daitezen.
- Gainera, berak kontrolatzen du prebentzio-baliabideen presentzia, beharrezkoa izanez gero.



KONTRATISTA. Eraikuntza-obretako enpresa nagusiaren arduraduna da. Hauxe da bere definizioa: “Obra guztiak edo batzuk egiteko ardura hartzen duen pertsona fisikoa edo juridikoa da. Konpromiso hori hartzen du sustatzailearekin lanak egiteko, bere giza baliabideekin eta baliabide materialekin, bereekin zein besteekin, proiektuari eta kontratuari loturik”.



- Proiektuaren fasean, segurtasunari eta osasunari buruzko azterketa idatziko da (obrak txikiak direnean, oinarritzko segurtasun-azterketa izaten da). Kontratista nagusi bakoitzak segurtasun- eta osasun-plan bat egin behar du, eta plan horietan modu zehatzagoan azalduko dira kontratistek lanetan zehar izango dituzten arriskuak eta hartuko dituzten segurtasun-neurriak.
- Segurtasun- eta osasun-plan hori obrak hasi aurretik onartu beharko du segurtasun- eta osasun-koordinatzaileak, onarpen-akta bat idatziz. Onartzen ez bada, koordinatzaileak onarpen-akta bat egingo du (ezezkoa), zuzendu beharreko akatsak adieraziz.
- Gainera, kontratistak lantokia ireki egin beharko du, obra lantoki bat baita ondorio guztietarako, eta bisita-liburua izan behar du agintaritzaren eskura.
- Beste edozein enpresa-jardueraren koordinaziotan bezala, kontratista nagusiak bere langile guztien dokumentazioa aurkeztu behar du (medikuaren aburuz gai izatea, prestakuntza, norbera babesteko ekipamendua entregatzea, TC1, etab.)
- Kontratista bakoitzak, 32/2006 Legea betez, azpikontratazio-liburua aurkeztu behar du. Bertan inskribatuko dira bere menpe dauden azpikontratazio guztiak (gabestia eta osorik ez gotea hutsegite larriak dira).

AZPIKONTRATISTA. Enpresa kontratistak obraren zati bat pertsona fisiko edo juridiko batekin azpikontratatu ahal izango du. Pertsona horrek, kontratistaren aurrean kontratu bidez, obraren zati bat edo instalazio jakin batzuk egiteko konpromisoa hartzen du, obraren exekuzioa arautzen duen proiektuari lotuta, eta enpresa azpikontratista deituko zaio.

- Egin beharreko lanen arriskuak eta prebentzio-neurriak kontratistaren segurtasun- eta osasun-planean badaude, plan horri atxikitzeko akta bat aurkeztu beharko dute (atxikitze-aktaren formatua)
- Enpresa-jardueren beste edozein koordinaziotan bezala, azpikontratatistak bere langile guztien dokumentazioa aurkeztu behar du (medikuaren aburuz gai izatea, prestakuntza, norbera babesteko ekipamendua entregatzea, TC1, etab.)




LANGILE AUTONOMOIA. Pertsona fisikoa da, kontratista eta azpikontratista ez dena, lan-kontratu bati lotu gabe jarduera bat modu pertsonalean eta zuzenean egiten duena, eta obraren zati edo instalazio jakin batzuk gauzatzeko konpromisoa hartzen duena sustatzailearen, enpresa kontratistaren edo azpikontratistaren aurrean. Langile autonomoak besteren konturako langileak obran enplegatzen baditu, enpresa kontratistatzat edo azpikontratistatzat hartuko da 1627/1997 Errege Dekretuaren ondorioetarako.

- Egin beharreko lanen arriskuak eta prebentzio-neurriak kontratistaren segurtasun- eta osasun-planean badaude, plan horri atxikitzeko akta bat aurkeztu beharko dute (atxikitze-aktaren formatua)
- Beste edozein enpresa-jardueraren koordinaziotan bezala, autonomoak bere dokumentazioa aurkeztu behar du (medikuaren aburuz gai izatea, prestakuntza, norbera babesteko ekipamendua entregatzea, autonomoen ordainagiria, etab.)
- Langile autonomoak ezin izango ditu azpikontratatu berari agindutako lanak, ez beste enpresa azpikontratista batzuei, ez beste langile autonomo batzuei.
- Langile autonomo bat kontratista edo azpikontratista gisa kontratatzen badute, lana autonomiaz eta bere erantzukizunez egin beharko du, kontratatu duen enpresaren antolaketa- eta zuzendaritza-eremutik kanpo.

BESTEREN KONTURAKO LANGILEAK DITUZTEN LANGILE AUTONOMOAK ETA ENPRESA-JARDUEREN KOORDINAZIOA

Langile autonomoak soldatapeko langileak badauzka, enpresatzat hartuko da. Horixe aipatzen dute Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 24. artikulua eta 171/2004 Errege Dekretuak. Bestela, kontratistatzat edo azpikontratistatzat hartuko da; hain zuzen ere, 1627/1997 Errege Dekretuaren edo 32/2006 Legearen ondorioetarako, arau horietan bertan zehazten den bezala. Enpresa bat izanik, eta ez langile autonomoa, euren langileei dagozkien betebeharrak guztiak izango dituzte segurtasun- eta osasun-arloan, alegia, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legeak eta edozein enpresabururentzako garapen-araudiak ezartzen dituenak.



APLIKATU BEHARREKO ARAUDIA

- 31/1995 Legea, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa.
- 54/2003 Legea, lan-arriskuen prebentzioari buruzko arau-esparrua erreformatzekoa.
- 32/2006 Legea, eraikuntza-sektorean azpikontratazioa arautzen duena.
- 20/2007 Legea, Lan Autonomoaren Estatutuarena.
- 39/1997 Errege Dekretua, urtarrilaren 17koa, Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzen duena.
- 1627/1997 Errege Dekretua, urriaren 24koa, eraikuntza-obretako gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenei buruzkoa.
- 171/2004 Errege Dekretua, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legearen 24. artikulua garatzen duena (azaroaren 8koa), enpresa-jardueren koordinazioaren arloan.
- 604/2006 Errege Dekretua, Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua onartzen duen 39/1997 Errege Dekretua eta eraikuntza-obretako gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituen 1627/1997 Errege Dekretua aldatzen dituen.
- 1109/2007 Errege Dekretua (abuztuaren 24koa), eraikuntza-sektorean azpikontratazioa arautzen duen 32/2006 Legea (urriaren 18koa) garatzen duena.
- 337/2010 Errege Dekretua, honako hauek aldatzen dituena: 39/1997 Errege Dekretua, urtarrilaren 17koa, Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua onartzen duena; 1109/2007 Errege Dekretua, abuztuaren 24koa, Eraikuntzaren Sektoroko Azpikontratazioa Arautzen duen urriaren 18ko 32/2006 Legea garatzen duena; eta 1627/1997 Errege Dekretua, urriaren 24koa, eraikuntza-lanetako gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituena.
- 1071/2010 TIN Agindua, lantokietan jarduerak irekitzeko edo berriz hasteko jakinarazpenek bete behar dituzten baldintzei eta datuei buruzkoa.
- Europar Batasuneko Kontseiluaren Gomendioa, 2003ko otsailaren 18koa, langile autonomoen laneko osasunaren eta segurtasunaren babesa hobetzeko buruzkoa (2003/134/EE).
- Laneko Segurtasun eta Osasunerako Batzorde Nazionalaren lantaldearen aholkuak, Langile Autonomoei eta Prebentzio Jardueren Koordinazioari buruzkoak.